



Heldu da kokoa!

 **AMETS ARANGUREN**

Ikusi edizioa *streaming*ez ikusi ondotik, bueltan da Iruinkoia karriketara. Iruñeko inauteri euskaldunaren laugarren edizioari harrera ederra egin zioten aurten ere Alde Zaharreko kaleek pasa den otsailaren 27an, igandearekin. Berriz ikusi, entzun, sentitu eta usaindu ahal izan ditugu kokobeltz zein kokoxuriak auzoko izkina denak hankaz gora jartzen.

Zaldiko-Maldiko elkartearen dute hitzordua parte-hartzaileek goizeko 8:00etan, elkarrekin gosalduta, jantzi eta eguneko azken detaileak fintzeko. Hor bildu dira dantzariak a.k.a *kokoxuriak*, zirtzilak a.k.a *kokobeltzak*, musikariak a.k.a *Izurritearen fanfarrea*, bertsolariak eta dena ongi joan dadin lanean dabilen logistika taldea a.k.a *logistikoko*. 9:30etarako denak prest, bakoitza bere paperean sarturik. Hasi da zalaparta indaz inda.

Kalejirana auzoko lau espaziotan egin dituzte geldialdiak a.k.a *asaldutak*: LABA, Iruña Taldea, Iparla Elkartea eta Matlazeko lagunak bisitatu ondotik abiatu

gara Santa Ana plazara, libertimendua emanen zuten lekura. Asaldutan soberran izan da jana eta edana eta plazara bitarteko bidean kronikatxoak egiten ibili dira bi bertsolariak.

Santa Anara heltzerako zirkulua osatua dute ehunka jendeak. Iruinkoioaren gauza ederrenen artean da intrigarena, ez da bakarrik publikoak ez dakiela zer topatuko duen *jeikaldietan*, baizik eta kokobeltzak ez diren gainontzeko parte-hartzaileendako ere sorpresa dela zirtzilek antzestuko dutena. Horrek gehitzen dio xarma gehien emanaldiari.

Urtean zehar gertaturikoak karikatuzatu eta hirian zeresana eman duten pertsonaiei barre egin edo zirikatzea du helburu inauteriak, norbere buruarengandik hasita. Egurra eman diete aurten, besteak beste, Hedoi Etxarte, Kai Nakai, Chill Mafia, Esporrín, Maya, TERF, GKS, Ernai eta Ion Celestinori. Ikusi ditugu Alde Zaharreko taberna mitikoetako tabernari mitikoak kexuka eta hortik ibi-

li dira ere Pfizer, Tinder, errusiar bat, Reimy, Anuar, Saioa Alkaiza eta zuberotarrak, benetako ekialdea zein den aldarrikatzen azken hauek.

Fin eta gogor aritu dira Irati Majuelo eta Saioa Alkaiza bertsolariak jeikaldietan ikusirikoa eta haien iritzia kantuan ematen. Jeikaldietako bateko protagonista izanik, zailtasun bikoitza Nafarroako txapeldunarendako. Hain ziren sartuak kokobeltzak haienean, ezen zirtzil batek klabikula apurtu duela jeikaldi bukaerako meta batean. Plazako emanaldia bukatu eta ospitalera egin du segituan. Gero, noski, zuzenean joan da etx... E! Inauteriak direla! Festara itzuli da! (Tarte batez behintzat).

Ez pentsa euskaraz, erreferente lokal komunak tarteko eta jarrera kritikoz denok denoi barre egiteko plaza askorik dagoenik hiri honetan.

P.D.: Heldua naizenean kokobeltz izan nahi dut.

Biba Iruinkoia! ●